

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENTA

Iruigarren urtea. - Pamplona - Septiembre - 1968 - Buruilla - Iruña, 31'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

## Baztandarren Biltzarra

Aintzineko urte oietan bezala aurten ere «Baztandarren Biltzarra» ren eguna ospatu da Elizondo'ko errian. «Baztandarren Biltzarra», izenak dion bezela Baztan'go erri-etako elkartasun bat da eta besta hori ortarako da, baztandar guziak bat egirik elkarren artean egun goxo bat igarotzeko eguna. Ortaz bada gure baztandar biltzar au bear du gu ongi zaindu, bazterrak nahasi gabe gauzak bere neguritik atera gabe baztandar guziak beti anaia bezala elkartu daitzin. Soberakinak ondutzen du elkarte eta goxotasuna ere galtzen du. Baztandarren Biltzarra izan da diela egiazko euskal besta, eskuara beti denen gañetik egon dadien.

Abuztuaren amekagarren eguna zerue goibel agertu zitzaikun, zerue goibel bai bainan biotzak alege-ra, gure baztandarren bilgura orrek beti izaten baitu alako kutsu zoragarria, anaien maitasuna agertzen duen eguna baita.

Goizeko bederlatzi terdietan eta aintzineko urte oietan bezala, Meza Eikartua izan ginuen. Meza guziz ederra amar apez baztandar Mei Sainduaren inguruan. Eliza mukurruaño bete orratz bat kokatzeko lekurik ere etzela. Elizkizun hunkigarria den dena eskuaraz egina, kantuak, otoiitzak eta itzaldiak. Meza izan da dudik gabe «Baztandar Biltzar» egunak izan duen gauzarik ederrena. Zorionak apez baztandarrei eta gure goresmen bizienak Mezaren gidariari eta bai otoiitzari ta kantariari ere.

Meza ondorean karrozen ibillaldia Elizondo'ko karriketan barna. Maurizio eta Felix Baztango txistulariak denen aintzinean zoazin Balleko ikurriñarekin batean. Gero Lesaka'ko dantzariak beren txistulariekin, zazpi karroza lerro lerro eta



tarteka, txistulariak, albokariak, kordionistak, triki-trixa, «Oberena» ko eta Zarauz'ko dantzariak beren txistulariekin eta oien artean gazteria dantzan zabilleta. Ezpeletako klika ere or ginuen bere soñu alegarrikin bazter guziak inarosten zituela. Eta azkenik Ituren'go gare yoile famatuak beren bulunba aundiekin soñulari. Karrozen artean baziren borts Elizondo'ko, bat Oronoz'koa eta bertzea Berroeta'koa. Danak ongi zauden, bazuten mamia eta beren erran naia. Berroeta'koa guziz ederra zen. Artzain bat bere etxolan gasna egiten eta aren ondoan eta kertxola baten barnean sei ardi. Dena egiazkoa eta artzaña ere bere lanean mendian balego bezala. Txistulari aunitz aurten, bainan zoritxarrez oien artean baztandarrik ez. Au ere lotsa da eta zer ari gara gaitz hori sendabidean jartzeko?

Euskalerriko erri aunitzetan badira txistulari taldeak, Lesaka'n, Alsasua'n, Zarauz'en Irun'en eta bertze leku aunitzetan ere, eta Baztan'en olaxe gabiltza bizpauru txistulariekin bakarrik. Auzi hori Baztan'go Balleko aintzindarien eskuetan dago eta nai izan ezkerro gauzak aisa antola daizteke. Erakustalea badugu eta ona gañera, txistua eta Baztan'go dantzak ederki erakutsi dezazkena.

Karrozen ibillaldiaren ondoren, baztandar gazteek mutil-dantza saioa egin zuten eta oien dantzaldien ondoan, Iruña'ko «Oberena»ko dantzariak beren aitaldia egin zuten. Gero bazkaria, eta bazkalondoan, baztandar bertsolariak, kantariak eta naiko dantza. Arratsaldean karriketan yendea pillaka bozkarioa ederki nabari zutela. Bainan utz ditzagun oiek guziak alde batera eta aipatu dezagun «Maitena» zinemaren eginekako euskal-teatroa. Errenderi'ko «Ereintza» taldeak euskal antzerki zoragarria erakutsi ziguten, «Ezkontzeko Deia» deitutako antzerkia agertu zutelarik. Antzerlari errenderiarrek ederki ari izanak dira trebetasun aundiarekin beren lanean eta eskuara ere aisa eta garbi erabiltzen zutelarik. Antzerki gustagarria izan zen eta «Maitena»n bildu ginenak errenderiarren ohoretan txalo ederrak yo gintuen. Euskal antzerki hori Mezarekin batean izan dira euskaltzale guzientzat Baztandarren Biltzarrik izan dituen gauzik ederrenak, gure mintzairak or baizuen ohore eta indarra eta oietan ageri baita gure egiazko nortasuna.

Aurtengo Biltzarra ospatu da eta Yainkoa lagun urrengoaren zai gaudede, beti baztandarren elkartasunari begira.

M. IZETA



## AMA MINTZO

— 1 —

Ama ona ni umeendako beti ala naiz izena. Umeak apain ikusi naia nere asmo aundiarena. Umeak eder, azkar ta garbi mundu guzien barrena: mundu guziak aitortu dezan nere umeen kemena.

— 2 —

Nere asmoa beti izen da nereak nere zaintzea; nere itz bakar beren agotan elkarrekin ibiltzea; bizomoduan nere oiturak beti zintzo gordetzea; beren barnean nere anima bizirik idukitzea.

— 3 —

Badakit ongi, nere etsaiak il naiean nabillkate; merezi gabe eraman ditut zenbait eta zenbait kate! Merezi gabe etsi zaizkida an-emen ameka ate! amorratuak irri auserki nere gain egin didate!

— 4 —

Etsaien irri nazkagarriek miña dakargit egitan; lanean ari dire lasaiki ilunbe eta argitan. Baña egia erran bearko negarrarekin begitan: nereak makurrago dabilta itxurez zenbait alditan.

— 5 —

Nere ez denak ni gaitzesteak ez nau inolaz arritzen. Nereak nitaz alke izeteak nau egiazki samintzen. Amaren alde ateratzeak zertaz zaitue izitzen? Ama onakin ona izetea biotzak ez du agintzen?

— 6 —

Nere bularrak azietako ume bat baño geiago ikusten dut nik bertze bidetik gatea dula naiago; nik erakutsitako guzia deus ez delakoan dago; ni utziz ueste du gizajoak dela nonbait argiogo!

— 7 —

Neri yarraikiz ez omen daike irabaz inon dirurik; nere itzekin ez omen ere erdietsi yakindurik; ez eta ere inolakoan kurritu gaurko mundurik; nere alde denak ez omen dauke buruen aunitz zentzurik.

— 8 —

Ni ilez geroz omen litzake argitasune aurretan; ni gabe, arki omen leiteke poz ta zorion gaztetan; ni kendu, eta erreztasuna mendi, etxe, errietan; ni ilko banintz, txakurrek ere lukainkakin lepoetan!

— 9 —

Baña nereak ez doaz denak bide untatik eroki; munduan bada (bearrik ere!) zentzudunarentzat toki; nere aunitzek ikusten dute zer den denentzat egoki; amari yarrai nai diote bizitz guzien sendoki.

— 10 —

Biotzez maite ditut nik ume yakinduri gutikoak; nik ez dezaket bazterreratu maite dituzten Yainkoak. Maite ditut nik biotzez ume yakinduriz betekoak. Nik maite ere biotz biotzez bi sail oken tartekoak

— 11 —

Nere umetan arki ditezke sendagile ta gotzaiak; nekazari ta itsasgizonak, abogadu ta artzaiak; praille, monjatxo, organo yole, kantari aski alaiak; denok alare alkerik gabe izkuntzan beti anaia.

— 12 —

Etsaiak! utzi txorakeriak beingoan alde batera; nik emaneko itzkuntzarekin ez zoazte ta galtzera. Gizon mazteki aski aundiak dire nigandik atera. Zerbaitengandik denen Ama naiz! Izenen ere! EUSKERA.

IBARRONDO



# Los Dantzaris de Tudela,

## la más genuina representación de nuestra tierra

Mariano del Mazo, en su habitual crónica de Madrid, comenta dos artículos aparecidos en la prensa de aquella ciudad, en defensa de los idiomas catalán y vasco. Y esa tónica de comprensión, esa quiebra del separatismo centralista que negaba la nacionalidad española a algo tan profundo en el tiempo como el euskera, de tanto solera histórica como el catalán, me alegra y debe alegrarnos. Contra lo que pudiera creerse, un gran número de los intelectuales españoles ha sentido siempre fuerte simpatía por los problemas y personalidad regional. Una era de convivencia entre todos, es el más afortunado acaecimiento para España.

### TUDELA, EJEMPLO VIVO

Hace poco escribía yo un comentario a los actos que la Institución Príncipe de Viana celebró en Vera en torno al reparto de premios a los niños euskaldunes. Y, en aquella fiesta, cuyo objetivo era defender la lengua y cultura Vascas, hubo algo que faltó y cuya presencia hubiera catalizado nuestra confianza en el futuro. La actuación de los dantzaris, de Tudela. Ellos son la más genuina expresión de la vitalidad de nuestro pueblo. El símbolo y la avanzada. Mucho más mérito que el de la conservación de un idioma que oímos desde nuestro nacimiento, pero mucho más, tienen el esfuerzo de un grupo de tudelanos que han aprendido a hablar el Vasco. Ellos se merecen el mejor homenaje de la institución. Ellos, que son esperanza y promesa de la tierra.

### NO OLVIDEMOS A LA NAVARRISIMA TUDELA

Quizás no hayamos sido justos con esa ciudad nuestra. Quizá la hayamos olvidado un poco estirando demasiado los noventa y tantos kilómetros que la separan de Pamplona. Y, a pesar de todo, Tudela ha conservado un navarrismo ejemplar, abnegado a veces, exaltado siempre.

Se me ha dicho que, hace poco, una publicación insertaba un artículo en el que se negaba a Tudela su ser vasco. A los pocos días me llegué a la ciudad ribera. Recorrí sus calles, y me entretuve leyendo los apellidos vascos de los rútolos, desde la plaza de los Fueros hasta las rúas estrechas que rodean la catedral. Pero había que profundizar más. Los apellidos no son siempre índice seguro. Durante la invasión árabe los «colaboracionistas» avalizaron sus nombres. Los Beni Quasi, por ejemplo. Y también se han castellanzado otros muchos. Hablé con amigos tudelanos. Y uno de ellos, un joven y muy inteligente escritor, apostilló:

«—¿Que no somos vascos? Pero entonces... ¿qué somos? Para contestar a esa afirmación, tan gratuita, sólo hace falta un manual de historia. Un manual de historia solamente».

El vasco sigue presente en Tudela. Clavado en la tierra y en los hombres. Y no quiero hacer una estadística del número de apellidos vascos que pueden encontrar-

se en la Ribera o en Irún. Pero quiero sentar que, mientras en Elizondo o Santesteban no hay un grupo de mozos dantzaris, lo hay en Tudela. Y lo tiene en medio de grandes, muy grandes dificultades, sin el apoyo moral y material que de Navarra debían llegar a manos llenas. Y, en vez de éste, se les niega el carácter de vascos...

El día en que la conciencia vasca despierte totalmente en nuestra Ribera, el euskera se habrá salvado y la personalidad navarra será fuerte como nunca. Mientras tanto, nuestra lengua soportará el triste sino de vivir enquistada en un rincón de su propia tierra.

### EL REY QUE MURIO EN TUDELA

Porque Tudela conmueve. Cuando, invadida Navarra en 1512 pedía a su rey un puñado de guerreros de refuerzos para oponerse, ella sola, a los mejores ejércitos de Europa, cuando escribió sus célebres cartas que son quizás las páginas más patéticas de la historia de Navarra, no se puede menos que cerrar el diccionario, por no encontrarse en él, adjetivos suficientemente fuertes para gritarlos.

Tudela ha tomado su navarrismo perfectamente en serio.

Nadie sabe la alegría, casi mística, con que volví a Tudela. Desde mi estancia, ya lejana, en el Colegio de San Francisco Javier, nunca había podido pasear tanto tiempo por sus calles, ni subir a sus dos castillos, sobre todo el que fue morada de Sancho el Fuerte, el último montañés coronado, lo llamara Campión, a pesar de haber nacido muy probablemente en Tudela. El rey que vivió allí y fue enterrado en Roncesvalles como si hubiera querido hermanar en su muerte toda nuestra tierra navarra.

Yo quisiera llamar la atención de Navarra hacia Tudela, hacia la gran avanzada de los vascos, en cuyas plazas, el txistu vuelve a acompañar el salto ágil de los dantzaris. En este actual renacimiento euskaldún, la presencia de la Ribera es necesaria. Y a ella deben estar vueltas con toda insistencia nuestras miradas.

### MENDAUR

(«La Voz de la Ribera» errebistatik artua).

## ESKVALERRIKO LEIOA

### EUSKAL AKADEMIAREN BERRIAK

Euskal Akademiaren illeroko agirian irakurria:

«Garmendia «Zeleta»-k, Euskaltzaindiaren Dagonilleko billera Elizondon egitea eskatu du, nafar euskaldunen alderdi ura aintzat artzearen. Ideia ontzat artua izan da, baiña aurtengoz, urte etaia ondo eramatearren, obo dala oitura dan gisara egitea, Donostian eta probintzietako uriburuetan, ta datorren urteko illaren batean Elizondon egin».

Gogoz eta pozez yakin dugu bada Euskal Akademiak datorren urtean bere illeroko biltzarretatik bat Elizondon izanen duela.

### XENPELAR'EN ERIOTZAREN EUNURTEBURUA

Denok dakigu zein izan zen Errenderiko seme zen Xenpelar bertsolari famatua. Urrengo il zenetik eun urte betetzen dira, eta errenderitarrek jai bereziak antolatuko dituzte beraren omenez. Begi onez errenderitarren alegiñ auek ikusten ditugu pakearen aldeko bertsuak eraten beti prest zegoen Xenpelar bertsolariaren oroimenez.

### DISKO BERRIAK

Donostiko «Herri gogoa» argitaldaria bi disko atera berri dizkigu arestian, bata «LAU KANTA» izena duena eta Xabier Letek egindakoa, eta bestea «TXALAPARTA» izenez eta Arza anaiek konpondua, ala lenengoa nola bestea «EZDOK AMAIRU» euskal kantu taldearenak dira. Exito aundia desiatzen dugu disko auek izan dezatela.

### ORIA'KO ALEGRIAREN «EUSKAL KANTARIEN LENENGO SARIKETA»

Gipuzkoa'ko Alegriaren Uztailaren 21 egunean «Euskal Kantarien Lenengo Sariketa» ospatu zan. Yende aunitz, euskeraren maitasuna txoko guzietatik somatzen zuen, eta denak kontent atera ziren Euskal jai au ikusirik.

Amasei kantari agertu ziran, eta lau Kantari talde.

Ona emen nola gertatu zen Sariketa:

### KANTARI BAKARRAK

- 1'go. Julen Goikoetxea (Alegrikoa)
- 2'gn. Gaztanzo (Legorretakoa)
- 3'gn. Beraza (Andoaingoa)
- 4'gn. Galdos (Azpeitakoa)

### KANTARI TALDEAK

- 1'go. «Erlak» (Pasaitarrak)
- 2'gn. Lezo'ko duo.
- 3'gn. Erri indarra (Txaramakoa)
- 4'gn. Erdik (Donostiarrak)

### JUAN GOROSTIDI IL DA

Juan Gorostidi, Donostiko Orfeoaren zuzendari famatua il da, irurogei ta zazpi urte zituelarik. Sari eta txingola (medalla) aunitz irabaziak zeuzkan: Alfontso Yakintzu erregearena, Zibil Merituarena, Aita Santuarena, Portugal'ko Ezpatarena, Bruselas'ko urrezkoarena, eta, eta.

Donostiko Orfeoaren zuzendaria ogeitamasei urtez izan zan.

Jaungoikoak ar beza bere Atsedean betiko. Goian Bego.



**ELIZAREN  
ITZA**

**BATIKANOKO II ELIZ  
BATZAR NAGUSIA**

**Eliza gaurko munduan**

Elizak, Jainko eta gizonekiko zintzo, nai eta naiez gaitzetsi bearrean dago miñez baño zorrotz, beti bezela, erakusbide eta jokabide galgarri oiek, arrazoiari eta gizadiaren zentzu osoari talka dagoitenak eta jaso bearrean gizona txirdikatzen dutenak.

Ala ere, ateok izan lezakzen arrazoirik izkutenak billatzen saiatzen da Eliza, Jainko-ukatzalle ok sortzen dituzten argudio latzak ezagutu eta gizon guzien ongi-naiez, arrazoi eta jokabide oiek sakonki eta ajola aundiz aztertu bear direla dio, Jainkoa airtortzeak gizontasunik ez duela murrizten, gizona gizon, ots, adimen eta askatasunarekin ornitu du Jainko Egilleak eta geiago dana seme bati bezela bere ondora deitzen dio eta bere aberastanaren maikide egin nai du. Geroko itxaropen ori emengo lanak betetzeko eragozpen ez da, lo-belarra bezela, zenbatenaz gartsuago eta kementsuago betetzen ditun emengo lanak, mardulago izango da jasoko dun saria, ortaz, ez eragozpen aurrerapen da. Beste aldetik ken zaiozu Jainkozko oñarria eta betiko bizitzaren itxaropena eta gizonaren nortasuna mozturik gelditzen da, ainbeste diren bezela gaurko egunean, eta bizitz eta eriotzaren, gaitz eta miñaren misterio itxiak atakik gabe arkitzen dira eta frankotan etsipena edo desesperazioa gizonari jabetzen dakio.

Gizon guziok daukagu asmakizun edo problema bat askatu gabea, sor-sorrean sumatzen duguna, eta ez da iñortxo ere, zenbait aldiz, bizitzaren gertakizun gallenenetan, galdera sorgin orrek kezkatzen ez dunik eta galdera orri erantzupen osoa eta zalantzirik gabea eman dezaiokena Jaungoikoa da, lurretik gizona egalkatuarazi eta ataka billarazten diona.

Ortiz, Jainko-ukatzalleen gaitzari eman bear dakion sendakiña au da, erakutsi garbi eta bear bezela Jainkoaren itza, eta begien aurrean jarri Eliz eta eliztarren bizitza, onek azaldu bear die Jaungoiko Aita eta gizon egindako semea, Espiritu Sainduaren graziaz bizitz ori bikainduz eta zarberrituz.

## Ermuko euskal idazle-en jardunaldietako erabakiak

1'go Letamendia, Garmendia ta Laspiur'en ponentziak ontzat artu, Xalbador Garmendiarenak obeki azalduko dire beste agerpen batean.

2'gn. Euskal idazleen elkarte bat sortu, San Martin'ek bere ponentzian azaltzen duen bezala. Orretarako, batzorde bat autatzen da, sei lagunekoa: Joan San Martin, Jose Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan

Mari Torrealdai, Xabier Gereño eta Manex Pagola. Batzar onek bideak prestatzen ditunean, dei bat egin beharko zaiei euskal idazle guzietari BATZAR AUNDI BATERA.

3'gn. YAKIN aldizkaria (Errebista), oraintxe lotzen da Oñatin Iraillean Euskal Akademiak artuko dituen erabakietara. ANAITASUNA-k, Bizkaiko Aldizkaria denez, bizkaieraz idazten jarraituko du; baño orrialde bat aterako du euskera literario batuan, Bizkaiko errialdea oituzten joateko. ANAITASUNAREN jokabidea ontzat artzen da, ta eskabide berdiña egiten zaio «PRINCIPE DE VIANA» Aldizkariari.

1'gn. Aditzaren (Berbo) batasuna beharrezkoa dela ikusten da. Orretarako batzorde bat sortzea eskatzen zaio Euskal Akademiari, bertarako auek proposatuaz: Mitxelena, Laffitte, Intxausti, Berriatua, Mendizabal eta Iraizoz.

5'gn. Euskal Erriko periodikueri, euskerazko sail bat sortu edo lengoa geiagotuzteko, aunditzeko eskatuko zaie Nola eta noiz egin, sortuko den elkartearen eskuetan uzten da.

6'ga. H'ari buruz, Baionako erabakiak ontzat artzen dira. Monzon jaunari H'ren aldeko arrazoiak adieraztea eskatzen zaio. Laffitte, Haritzelar, eta Larzabal jauneri, H letra nun eta noiz erabilli behar den azaltzea eskatzen zaie.

7'gn. Euskal Akademiari eskatzen zaio, Oñati'ko batzarrean artzen diren erabakiak, alik laisterren «Euskera» bere aldizkarian separata baten ateratzeko, erriaren eta idazleen jakinbiderako.

8'gn. «Hegosa» etxeari proposatu, Karmelo Etxenagusien antolojia biak, Bizkaikoa ta Gipuzkoakoa, argitaratzea.

9'gn. Ikastoletako andereño ta zuzendariari laguntza eskeindu, euskera literario batuari buruz: itzal-diak, ikasketak, arrazoiak, eta, eta...

## Jose Latorre Zaratiegui




## oroimenez

Ezagutzen gendun denok jo ta ke egiñik geratu gera bere eriotzarekin, Latorre jauna gizon zuzen, Diputazioaren langille prestu, Urmeneta jaunaren sekretario bizkor eta gure «Principe de Viana» maite onen dirueragille, zain eta banatzaile paregabekoa izaten zelakoz.

Uztaila-Agorrillaren «Principe de Viana» numeroa atera berri zan batean beraren eriotza gertatu zan onengatik numero ori etzen bere garaian etxetara eldu ia illabete bat atzeraturik.

Gure oroimen maitekor bat Latorre zenari eskeintzen diogu, baita ere gure dolumiñak bere alargunari eta seme-alabei. Azkenean zuei, irakurle maite guziet, otoitz bat eskatzen dizuegu bere arimaren alde.

GOIAN BEGO Jose Latorre Zaratiegui lagun maite-maitea!



## «Uda azkena ta estropak»

Laxter zera zu, nai eta nai ez zure azkenak agertzen. Eguna moztu ta eguzki argia goizeago dezu gordetzen. KANPISTAK beren txokueta asi zaizkigu itzultzen. Soruetan leka t'arto aliak ari dira biribiltzen. Urri belarra eta sagarrak, izeihen usai ona duten!

Beriala gera Agor illaren lilluragarrik ikusten. Estropa jaiaz mintzatzen gera ta ezgera errazki ixiltzen. Urtero estropak lengo denborak dizkigute gogoratzen. Zer ikusteko jaiuak gaude bide abetatik aurtent? ikusten danez gendiak beti nola nai ditu poztutzen.

Juan dan urtian Zeruko Argian esan ziran esan alak estropen alde alako kanta, alako doñu atabalak. Ikusi ziran begien aurrian bide garbi ta zabalak iraunazteko bildurrik gabe. jEtziran itza makalak! Bañan etzuten mami aundirik. Biurtu dira azalak...

Alako eran gelditu ondoren beren izen onarekin, urte osuan ez dira aitatu; aztu ziran denborakiñ. Orra, ba, etorri beren sasoi. Zeiñek jokatu? Zeiñekiñ? Ez dago poza aundi biderik gaurko egunez gurekiñ. Egon etzita; galduak daude esperantzak Orio'kiñ

Bitartian gendia sinistua zegoen gauzak ongi zijuazela eta estropak bere bidian ongi sartuta zeudela. Artan geunden gu betiko altxa ta zut zutikan zirala. Ara azkenian uste etzana aurtent gertatu zaiela jBai aldakorra t'argal batzuek besterikan ezgerala!

Juan zan urteko estropen garra asi zan beila itzaltzen. Ta ordu ezkeror oraiñ bitartian ez degu itz bat entzuten. Alderdi txarra; orrela iñortxo ez da erraz berotutzen. Gauzak biar dute beren girua, ta ezer ez dago gaur emen. Mirari aundi bat gertatze'ez bada, ez dijuu ORIO aurtent.

Gauzak ezdiujuaz atzeazka Orio'n baizik dijuazti aldatzen. Estropetako ziran su aiek, ez dijuaz-diot-galdutzen. Denbora berri oitura berrik, au da deguna ikusten. Arraunketa, bai, beste erataru urai bidia irikitzen. ORIO'ko erriyua, zure izena ari da nun nai zabalitzen.

Dakien bat'i galdetu diogu: «¿Agur ORIO'k estropari?» «Bai, bai, -esan dit-alaxe da ta begitu ezkeror aurtenguari». Gero ere lanak izango dira. Zall da gizon osatze ori. Berai begira urte osuan, eziñ zaio iraunazi. Ixtante batian amaitu eta... jagur, motellak, goraintzi!

Atzerritarrak arkitu ituzte arraunketa berri bidez ORIO erriyuan alderdi onenak jokatzeko gaurko legez. Erri ontako gazteri aukera


ez da torpe ta ez trakets. jZenbaterako pixtu dun sua eziñ gentzake egiñ amets! Etzaio etorri erri oneri txoriya eskutik aldrebes.

Ordu ontako jakiñen gañian egongo zeate ziur danok, nola ORIO'n sortuta dauden gauza berri, utziz lengok. Joku berriak dute izen bat ta da REMO OLIMPIKOK. Jasuak dauzka sortu ezkeror egundoko txalo berok. Itota uzten du estropetako lengo ziran aide berok.

Bazkune onetan zenbatze'itugu seireunetikan gorago. Geigo ta geigo ugaltzen eta ez dakigu guk noraiñ. Etxe berri bat altxatzea dijuaz beretzat betik goraiñ. Etxe orretan izango'ituzte jolas bidek asetzeaño. Ori da ori eskuetan dauka alaitzeko ainbesteaño.

Estropetako joko sukarra izan da emen inguruan, Donostian dala, edo Bilbao'n, Santander gañontzekuan. Bere soñua ta bere arua izanikan guk goguan, gauz gutxi dira oraiñ jartzeko berrien aurre ta onduan. Abetxan fama zabaldua dago bizi-biziro munduan.

JOAQUIN ALDAVE



## E R R I Z - E R R I



BAZZAN

ARRAIOTZ

ANDRE MARIETAKO BESTAK

Egun on erranez nai dut agurtu illeroko edo «errebista» au artzen duten guztiei. Emen nauzute gure Bestetako zerbait berri ematen.

Egia errateko Arraiotzeko erriak, aurtent bezelako bestiek ez omen du izan. Ez omen da ikusi egundaiño

## GURE GAZTEDIA «ZORIONA»

jO, gaztedi! Arrazoi aundia zeukan Ruben Darío olerkariak, gaztediari abesten zionean: «Gaztedi osasuntsu, aundi ta indartsu; leial ta zoragarri, ukondo ta oiñ-arri; zu izango zera, urteen zear, erriaren aga-arri...» Ta, alaxen da. Nor, gaztedia bezein alai? Nork, gaztediak ainbat poz ta zorion? Nork, gaztediak ainbat osasun? jGaztedi! Beti da gazte. Uda-berriaren antzera da. Beti mardul, sasoi ta alai. jGaztedi! Zu-gan du erriak itxaropen. Zu-gan etorkizun.

Gaztedia dela-ta, denbora gutxi da oraindik gazte talde bikain batek egin zigutela beren ikustaldi ta egonalditxo. Lizartza'tarrak ziran. Eun ta ogei bat neska-mutil, denak emezortzi-ogeira urtekoak. Den-denak euskaldunak. jZe gaztedia! Nolako edertasuna! Imanol Labaien Leizeaga, Lizartza'ko apaiz gaztea zuten gidari gazte talde arrek.

Ibilli-aldi bat egitearren Euskal-erriko bazter ta edertasunak ikustatuaz, Malda-Erreka ta Baztan'i egin zioten ospe ta ohore. Oronoz'ko Anai Maristen elizaxoan izan zuten beren elizkizun ta meza. jMezaren ederra! Nolako Jaun-artzeak! Ze abestiak! Meza'tik ateratzean, denak bat egiñik, alai ta zorionsu, abestu zuten Iriondo'tar Mari Lourdes'en «poema» goxo ta eztitsu bat:

— 1 —

Gazte gera, gazte ta ez gaude konforme, mundu garbigo bat bizi nai genduke, gezurraren kontra, injustizirik ez; gazte gera, gazte ta ez gaude konforme.

— 2 —

Nere abesti au ez da politika, justizia nai det, egiak agertu, gizonak dauzkan eskubide oiek kunplitu ditezen biotzez abestu, ez noa iñoren kontra, egia maite dut.

— 3 —

Gazte geralako maitasun batean sinistu nai degu, bañan baita ere geiegi dakigu munduan dagozten gezur ta gorroto, injustizi asko; gauza oien kontra abestu nai degu!

G. U. J.

## Elizondo-ko partida

(Airea: Lili bat ikusi dut)

— 1 —

Huna pertsu berriak, nik orai emanak. Kantuz erraitekotan plekarien famak: Elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak; Azkenean nausitu dire zaharrenak.

— 2 —

Mila bedrazi ehun hoi-ta bigarrena: Urte hau haintzetzat zer orhoitzapena! Irabaztailek plazer, galtzailek zer pena! Bethi lanjer menean irriskatzen dena.

— 3 —

Larunbatarekin zen, abendoak bia: Orduan jokatu da partida handia. Elizondon in zuen diruzko uria Bai eta proetchatu lapurtar jendia.

— 4 —

Partida hau izan da izigarrikoa: Bakan aditzen baita hau bezalakoa. Trinketa hautaturik Elizondo-koa, Han eginen zutela guziak jokia.

— 5 —

Dongaitz anaia biak, Leoniz ta Arcé! Partidaren finitzen lanak izan tuzte. Gaztek galtzerik ere ez baitzuten uste, Azkenean zaharrek irabazi dute.

— 6 —

Jean-Baptiste Dongaitz zen gizon famatua, Ez baita maiz ikusten hoi bezalakoa. Berrogoi urte eta ehun kilokoa, Berdin, buruz nagusi, egin du jokia.

— 7 —

Besoa hasi zaio pichka bat tikitzen, Gorputza pisutu ta ilea zuritzen: Bainan halere ez da batere izitzen, Azkenean badaki kintzea trenkatzen.

— 8 —

Partida egiletan bat zen Mendiondo: Ez omen du ikusi nehor egundaino Horrela atchikitzen azken kintzeraino Ondarrean Jean-Baptiste nausi zen oraino.

— 9 —

Hamar mila libera alde bakotchetik Behar zuzten jokatu hasteraz geroztik: Trebesak zenbat ziren Jainko onak zakik, Galdu duten gaichoek ere bai hargatik!

— 10 —

Ondoan banituen urguluatsu haintz, Oihu-garrasiaka chantza bildu nahiz: Sekulan parada hoi jiten bazait berriz, Begira egonen naiz bazterretik irriz.

— 11 —

Partida horren famak horra hor pertsutan. Guziek kantatzeko Eskual-herrietan. Nihoz gertatzen bada ene beharretan, Zerbitzaturen ditut denak lorietan.

— 12 —

Kantuen emailea Batista handia; Guziek dakitena, gizon bat noblia; Pertsu berri emaiten parerik gabea; Lanetik ageri da ofizialea.

J.-B. MILLOX  
Senpertarra.

Udazkeneko nere zoriona da neurririk gabekua. Jari det eta nere ganbara igale askoz osatua. An daude, bai, zintzilik baratzuri kordak, sagar, intxaar, gaztaña, urrezko arto zortak. Baxter batian ere aukeran mats porkak. Bildu ditut nik soroko emaitzak. Orañ nago zorionian. Belar ondua metaziritan dago etxe inguruan. Uda aurtengoz jun da ta ez det bildurrikan. Lana bapo egiñ ta ez daukat kezkan. Betoiz elur ta izotzak: etzait ajolikan.

Moztu da eguna; luzatu gaba; laxter gera illunpetan. Tximixta argituz trumoiak jo du orru izugarriyatan. Gure sukalde txokon enbor su garretan; eltzia gir-gir dago gozua irakitan. Kanpon euriya ari du eraso aldietan.

Beiak bildu ta Errosariyua esango degu sendiyan Antxen dauzkagu aiton-amona seme-alaben erdiyan. Artu gendun oitura iraunde luzian, oiñ arriya bikaña kristauben pakian. Ez al degu galduko Jaun aundi izenian.

Gure etxia ez da kutsutu diru gose, egarriyan. Etzaigu sartu biyotz barruan zalekeri gaitzarikan. Esnia lodi-lodi beien errapetan. Errapetan bezela gero katilluetan. Artu-emanak dira zuzentasunetan.

Itsaso aldetik odeiak datoz aizek gogor bultzatuta. Odei tartetik aldi aldietan dago zerua izartuta... Auzo baserri etxiak denak apalduta lo gozo atsegiñetan daude lokartuta. Kristau artian zoriona dago zabaldua.

«URDENEGI-TARBAK»

J. A.

# IKASI, MIKASI...



## Ezkongaietan zerbait banitzan...

—Jainkoak diola eun on, jaune.  
—Egun on, mutil.  
—Uste'ot ezautuko naula...  
—Nunbait ikusi zaitut, baño ez naiz oartzten...  
—Majifiteatez nik beorrei meza laundu diot, ba.  
—¡Aaa! ¿Ramontxo izango zera zu noski?  
—Ala da, jaune.  
—¡Nola doazen urtik! ¡Lenago, Montxo edo Ramon-  
txo, mutiko potolo bat, eta orain mutil sendoa eginda!  
—Urtik ee bathot, jaune; oitazazpitaa noaie.  
—Ta, ¿orain?  
—Ezkontzeko asmoan nao, ta beorren konseju ba-  
tzun bille etorri naiz.  
—Pozik, zu ta biek bakarrik gaudela, itzalditxo bat  
botako dizut, baño kontun iduki nere aite zenak berso  
baten ziona:

### «KONSEJU ONAK EMATEN DIRA, ¡LAN DAGO EZIN EGIÑA!

—Lanak ez dit bildurrik ematen. Kamion bat bauket,  
etxea ere bai...

—Ekusten dutenez, etzaude gaizki, baño ezkontzen  
lan aundiena da senar-emazteak pakean, Jainkoan bil-  
durrean, bizitzea; ta seme alabak, bear dan bezala,  
azitzea.

—Oi nai nuke, jaune.

—Ortarako, lendabizi jakin bear dezuna da, zer den  
ezkontza.

—Obe izango da beorrek esaten badit.

—Ezkontza da, senar-emazte beorrek elkarrekin bizi  
izateko egiten duten egiune edo kontratua. Gañera,  
kristautentzat Sakramentu Santua da. Elizen egin oi da,  
apaiz baten aurrean. Onak, Elizaren izenean, bedeika-  
tzen du. Ez ditu berak senar-emazteak ezkontzen, bi  
ezkonbeorrek baitira elkarren ezkontzale, apaiz balira  
bezala. Bizi diran arte elkarrekin bizitzeko itza ematen  
dute, agoz naiz keñu garbiz.

—¿Nok sortu zun ezkontza?

—Ezkontza Jainkoak Berak asmatua ta egiña da.  
Adan eta Eba izan ziren lenengo senar-emazte. Jakiñe  
da Jainkoak lurrean eskutik atera zuen sortukai ede-  
rrena, gizakia dela: au da, gizona ta emakumea. Ta gizo-  
nak eta emakumeak berez ilkorrak baitira, bizi ori lu-  
zarazteko, edo berak il baño len beste bati emaneraz-  
teko, Jainkoak esan zien: «UGARITU ZAITEZTE LU-  
RREAN» (Jen, 1-22).

—Jesukristok ¿zer dio ezkontzaz?

—Biñepin aditu izango zitiun nola Kanaako eztaieta-  
ra juan zela Bere Ama eta Apostoluekin, non egin zuen  
lenengo miraria, ure ardo gozoan biurtuz. Baño irakurri  
dezagun zer diagan ebanjelioak zuk nai duzun gai or-  
taz:

«Beiñola, pariseuek Jesusi zitzaizkion zer-atera.  
¿Zillegi al zaio senarrari, emaztea edo zergatik  
uztea? Jesusek erantzun zien: ¿ez al duzute ira-  
kurri Egilleak astetik ar eta eme egin zitula, ta  
au esan ziela?: argatik gizonak aitamak utziko di-  
tu ta emazteari itsatsiko zaio, ta biak bat aragiz  
izango dira. Beraz bi ez bañan aragi bat dira. Be-  
raz, Jainkoak batu duna, gizonak ez beza bakan-  
du». (Mat. 19-6).

—Ezkontza Jainkoak asmatua ta, gañea, Sakramentu  
Santua bada, ¿zeengatik askok, ezkontu berriei beithu-  
ta, par eiten dute, ezkontza gaiztakerion bat balitz be-  
zala?

—Aita eta ama askoren zabarkeriz gertatzen da ori.  
Seme alabak txikik direnien, aurrek Paris'tik edo Iru-  
ña'tik ekartzen direla esaten diete. Aundixeagoak dire-

nian, zerbait galdetzen ba'dute, edo irri parrez asten  
ba'dira aitaman «kontu» adituta, zaplatako bat ematen  
diete. Gero, mutiko ta neskatoak, lagun gaizto baten  
agoz, ikasten dute nola aurrek sortuzten diren, eta,  
¿arriztekoa da ezkontzari, gaiztakeri bateri bezala begi-  
tzen ba'diote?

—Ordun beorren ustez, iriki bear zaizkie begik arrei  
txiki txikitatik?

—Txiki-txikitatik, ez; baño, seme alabak, zazpi edo  
zortzi urte betetzen dituenian eta zerbait sumatzen  
asten direnien, jakin bear dute, poliki-poliki, nola Jain-  
koak ematen dizkigun aurtxoak, baño aita ta ama me-  
dio direla. —«Jesukristo Bera-esan dezakiete», ¿etzen  
jaio Ama Bijiñagandik? ¿Ez diegu esaten: Bedeintatua  
Zu zera andre guztien artean eta bedeinkatua da ZURE  
SABELEKO FRUTUA, JESUS?» Jakin dezatela, bada, be-  
ren gurasoengandik, batez ere amarengandik, ezkontza  
—gizona ta emakumea bear den bezala elkartzen dire-  
nien—, Jainkoak jarritakoa ta Sakramentu Santua dela.

—Bein baño geiagotan aithu izan duet beorrek dio-  
na, baño senar-emazteak larritasun aundia izaten omen  
dute eginbear oi betetzeko.

—Ez dakit zerengatik. Begira Eliz Ama Santak, ez-  
konberrien alde ta elizen den jende guztien aurrean,  
egiten duan:

«OTOITZA.—Zure alaren indarrez guziak ezer  
eztik egin dituzun Jainkoa: sortukai guziak antola-  
tzean, Zure antzera egindako gizonari emaztea  
lagun ezin utzia eman baitoizu, giza-gorputzetik  
emaztearena ateraz, Zuk batetik egin zenitunak  
bakandu bear etzerala adierazteko: ezkontza mis-  
terio aundi sagaratu baituzu, Kristoren eta Eliza-  
ren arteko batasunaren idurritako;  
Zuk batzen duzu emaztea gizonarekin, eta lagu-  
narte santu au Zuk bedeikatua da, ta bedeiku au  
etzaio kendu, ez jatorrizko pekatuarekin, ez eta  
ugalde aundiarekin.

Begira onez Zure neskame oni, Zure babesa  
billatzen baitu gizonarekin elkartzean.  
Uztarri au maite-uztarri ta pake-uztarri bekio.  
Kristogan zintzo ta garbi ezkondurik, emazte san-  
tuen antzeko dedilla:

Gizonarentzat maitagarri, Rakel bezala;  
zugur, Rebeka bezala,  
urtesun eta zintzo, Sara bezala.  
Gaizto ark ez beza berekik ontan arkitu.  
Bego beti zintzo, sinistean eta aginduetan.  
Senar bakarrari erantsia, aldegin beza beste giza-  
kien kutxutik.

Bere aultasuna indartu beza, burubidez bizi izanik.  
Bedi buruz jantzia ta bildua, begirunez agurgarri,  
zeru-gauzetan ikasia, aur ugari, bizian errugabe;  
ta doatsuen atsedenera iritxi dedilla zeruko jau-  
rerrian.

Biek ikusi detzatela semeen semeak irugarren  
eta laugarren gizaldiraño, ta nai bezalako zarta-  
roa dezatela. AMEN».

—Mille esker, jaune, ta azkeneko galde bat. ¿Zein  
dan senar-emaztien buru?

—Lege-arauz, gizona da buru, Kristo Elizaren buru  
den bezala. Baño geinin emakumeak agintzen dute  
etxeetan, eta komeni da ere, berak gizonak baño begi-  
korragoak bai dire familian gauzetaako. Ez da gaur-  
koa eta etzikoera ere, gure athunak kantatzen zuten ber-  
so au:

«EzKONGAIETAN ZERBAIT BANITZAN,  
EZKONDU ETA, ¡EZERREZ!...

A. ASTIZ ARREGI

## LESAKAR GAZTEDIA



Eskatutzen degu leku alaitso bat, Lesakar neska-mutil gazteak bildu  
ahal gaitetzen zerbait antolatuz, elkar-izketaren bitartez.

Eskatutzen degu, baita, zentzutasun geiagokan jo dezaten soñua jai  
arratsalde-illunabarretan, galdu dan giroa berriro sortuazi dezagun.

Ona emen lesakar gaztedien bi eskaerak. Noiz eskuratu bear ditugu?  
Mesedez, jaunak...!

A. ERKIZIA

## ARBIZUAR AGURGARRI BAT

Ziorditik asita Irurzun-araño Sa-  
konan (Barrankan) erri txiki asko  
dira. Erri txiki oien arteko audiene-  
tako bat, Arbizu da. Gauz ikusgarri  
aundirik eztu, bakarrik eleiza ta  
gatzelu zarra «jakan etxea» esaten  
diotena. Erriko semien artean ba  
du bat oso gora igo zana. Lateran-  
dar lekaideen Abad Jeneral zala il  
zan. Onengain nai nuke zer edo zer  
idaztea. Bere izena: **Urkia'tar Fer-  
nando.**

Etxarri aldetik bide zarreko sarre-  
ran dagon eskubiteko lenengo  
etxean jaioa genduan Fernando. Gaz-  
te gaztetatikan ikastetxean ikusi  
arazi zuan bere azkartasuna ikaste-  
ko, baitare bere apaltasuna eta  
biotz ona lagunekin. Jaungoikoak  
apaizetarako aukeratua zirudin eta  
bai ta eraman ere laterandar lekaide-  
deak orduan Altsasun zeukaten  
apaizgaian etxera. Baña Oñatin bu-  
katu zituan bere ikastaldiak. Erri  
ontan lenbizi apaizgai eta gero ber-  
tako mutikoekin maixu bezela iga-  
ro zituan urte asko.

Toki askotan ibillitako gizona  
Frantzian ere egon zan eta ainbeste  
urte ondoren oraindik Bauchene on-  
doko erritan gaur gogoan daukate  
ain ongi organoa jotzen zuan Pere  
Urkia.

Irrutiko lurak ikusteko apaiza  
edo aberatsa izan bear dala esaten  
dute. Ezta gezurra! Nagusiak bialdu-  
ta Aita Urkiak Arjentina'ko lurak  
ikusi zituan. Salta'n, ala deritzaio  
bera bizi zan uria, ikaragarriko lan-  
gille zela esaten dute. Gañera lan

zallanak beretzako artzen omen zi-  
tuan. Salta'n beñ ere ez tute aztuko,  
bertako Patrono Deunaren himno-  
aren musika eratu (egin) zuan eta  
jende guziak abesten du himno ori.

Lenbizi etxeko Nagusi, gero pro-  
bintxiakoa ta azkenian Ordeneko Je-  
nerala izendatu zuten. Arbizuarrak  
oraindik gogoan daukate 1952'ko  
sanjuanetan egin zitzaion omenaldia.  
Bere lenbiziko meza pontifikala!  
Egun zoragarria benetan! Aztu ezin  
ditezken egunak!

Bigan aldiz Jeneral izendatu zu-  
ten eta andik urte batera, Erroman,  
Jaungoikoak bereganatu zuan. Goi-  
zeko ordubata edo ordubitarano la-  
nean osasuna galduta, ustez ongi  
zagon, atake batekin il zan 1959'ko  
San Jose egunean.

Nork pentsatu Arbizu'ko mutiko  
gazte ura ain gora igoko zala? Jaun-  
goikoak gauz aundietarako aukeratu  
zuan baña baita lan, bizimodu eta  
birtutekin aukera orri erantzun ona  
eman.

Gure errian ezta beñ ere gizon  
ospetsuagorik sortu. Jaioterrian  
beintzet kale batek bere izena era-  
matea merezi du. Zer uste degu  
alako gizon ospetsuak nun nai arki-  
tzen dirala? Edozein errik ez tate  
erreljioso ordeneko jeneral bat.  
Esan didate izen ori ba daramala  
kale batek baña nik ez tate iñongo es-  
kiñetan idatzita ikusi. Au orain ez-  
palinbada egiten, uste det, ondoren-  
gon batzuk arrituko dirala eta berak  
egingo dutela.

FELIPE ARAÑA

## BIL-TOKI BERRI BAT

**Bil-toki berri bat:** Jakin dukezu, kasetan medioz, etxe berri bat  
altxatzen ari dela Ustaritzen. Hiruetan ogoi ganbera edo gela badi-  
tu, jateko sala eder bat eta biltzarren egiteko sala batzu.

Ez da bakantzeri buruz eginiako etxea. Ez da ere hotel bat. As-  
ko baditugu Eskual-Herrian behar ginuen bil-toki berezi bat. Zer  
ebantaila biltzartiarrentzat, biltzar batek iraun baitezake egun bat  
baino gehiago.

**Norentzat:** Edozoin batasunentzat idokia da «Foyer de Session  
Socio-culturelles» delako hori. Batasun guzientzat: laborari, langile,  
teatro-zale eta bertze... lanari buruz bildu nahi duten batasun gu-  
zientzat. Batasun bakotxak bere bilaldiak antola ditzake bere gisarat,  
bil-aldi denboran bere gain hartzen duela etxea.

**Eskualdunentzat ere bai:** Uztaritzerat etorriko zauzkigu kanpotiar  
asko, gure bil-toki hortan aurkituko baituzte behar duten bake bil-  
dutasuna eta goxotasuna. Erran gabe doa —bainan halere hobe errai-  
tia— kanpotiarrentzat idokia balinbada eskualdun batasunentzat ere  
bai.

Eskualdunak, badakizue orai zuena dala etxe hori. Zer toki abe-  
rats eta ederra Eskual-Herri eta eskual kulturaren alde ari diren  
batasunentzat.

ARASOC (Association régionale d'action socio-culturelle) deitu  
batasunak eta haren buruzagiak dautzue aintzinetik:

Ongi etorri,

JEAN HARITSCHELHAR

Galdegin xehetasunak adreza huntaraz:

M/Paul Bertrand  
Secrétaire général de  
l'A.R.A.S.O.C.  
3 Impasse Port-Neuf  
64 - Bayonne

edo: Mlle. Anna de Ynchausti  
Secrétaire générale adjointe de  
l'A.R.A.S.O.C.  
«Intxausti-Baita»  
64 - Ustaritz



## HUARTE ARAKIL

Udazken ontan, Lakuntzako feste-  
kin batera agotan zen Huarteko  
erria. Agorrillaren lenbiziko igan-  
dean, atsaldako botosten artzaien  
billera. Baño ez ildako ardiak, esa-  
na den bezala. Bedratzi nagusiren  
txakurrak ari izan dira ardiekin lan-  
nean.

Jende asko eta giro ona. Egun be-  
rean, euskalerriko beste txoko ba-  
tean, Yurreta (Bizkayan) egiña zu-  
ten goizeko amaiketari sayo berdi-  
na. Arabakoa, berriz, ondoko igan-  
dean. Iru erri auetatik ateratzekoak  
ziren Oñatira 22'an joango diren  
iru txakur oberenak.

Izen asko euskaldunak: «Geinbe-  
ra», apustu larrearen izena. «Txiki»,  
lan oberen egin duen txakurra;  
«Txiki», bigarrena ere, (beste zazpi-  
piak izen erdalduak zituzten).  
**Euskaldun asko ikusten; erritarrak  
erderaz. Urte gutxi joan da Huar-  
teko euskera.** Euskalerriko mugen  
zimurdura estua!

Bi «Txikiak», gelditu ziren azke-  
nik. Artaldeak bildu, sarean sartu eta  
berriz atera beharko zuten biak.  
Zoin baño zoin obeki ari izanak di-  
ra, eta Ricardo Goicoechea, errita-  
rrak, ereman zuen lenbiziko saria.  
Aspaldikoa zen festa au egiteko as-

moa. Duela zazpi urte, lenbiziko  
txakurren leiaketa, sua sortu errian  
eta egin gabe gelditu zen. Geroztik  
ixilduak ziren baztarrak, eta orai  
bat batean egin da. Eta ongi egin  
ere. Zorionak.

Ur otza botatzeko asmorik gabe  
artzai bati entzuna eldu dakit go-  
gora: «artzaiak gutxitzen ari dire-  
nean, artzai jolasak. Gazteak ez du-  
te lan orri lotu nahi; artzaiarena  
joan da... gu izango gera azkenak».  
Huarten ba dira, arrigarria! amabi  
artalde. Merezia zuten bertako ba-  
te irabaztea. **Euskera piztu baleza-  
te orai euskal oitura au bezala!**

# ERRIZ - ERRI



**BERA**

## EUSKERA NERE ERRIAN

Gai berakin anitz idatzia da. Zaila ikusten dut zerbait berria erratea baña nere pensamentuk emen daukazue lerro otan.

Ezduz nai inñori nastea eta gutxiago miñ egitea, nik ola ikusten dut eta kito.

Euskera nere errian gaizki ibilki da azkeneko urte otan. Ori da, gibelten.

Itz ok bateri burura etorritzen zaizkio eta penakin baña amaitu bear ola gertatzen ari dela gure txoko onetan. Egi samiña benetan. Beste toki aldin oraindikan loartuk gera. Euskera salbatzeko burruka asia da, guk ezin degu baztertu, antzintu bear dugu. Goartu gaituzen euskera galtzia pekatu aundia dela guretzat euskaldun izenakin deitzea nai dugunak. Gure gaztedia lotsatzen da euskeraz egitea, zergaitik? ezdakit, baña auzintzen yendea euskaldunak kontra mintzazen da eta auxe bai arrazoi gabe. Aintzek erraten dute euskera izkera osoa, berezia dagola eta ori ezin dela moldatu. Izkera bakotzak bere utsak iza-

ten ditu, ez pentsa ba euskeran bakarria gertatzen dela au. Euskeran bestetan biñon geiago izan lekie. Erritikan errira difentziak badira baña gure izkeran batasunera alletzen al da.

Orain arte liburu eta errebista bakana batzuek dira agertzen diranak euskeraz eta, gure etxetan baten bat ote den arritzen dira. Euskera illa egondu da, orain berriz piskan piskan biztuzten asiak dire gure aldamenekoak, guk ezer ikusgarrikan ezdugu egin lan onetan gure egunak arte.

Poztu bear genduke gure errian ikastolen bat sortzen baldin bada, bearrezkoa da-ta gure aurrentzat. Eta al den ta abudoena naiz umia izanikan orra biala, guk dakigun biñon geiago ikasiko du pezeta batzuetikan. Makiña bateri pasatu zaiona alegia bere lenbiziko egunetan ezdiotela erakutxi euskera, ezda gertatuko ikastolen bat erakusten asten bada oraintxe. Baña ez pentsa gero, aita aintzek barkamena dutela, bere semeakeri euskeraz ez diotelako erakutxi, orrenbeste ezdula balio pentsatuz eta aundia egitean nai baldin badu ikasiko du erranez.

Gaizki egiña agitz, euskera yakitgaitikan ezdu trabak bidean arrautuko erdara ikasteko. Gañera euskeraz egitea ta maitatzea poza besterikan ezdu ekartzen gure bio-

tzetara, olaxe bat goartzen da bere tokia betetzen ari dela euskeran bizian.

Nai nuke euskera ikasteko gosea ta jakinaia gure barrenean zabaltzea miñ bat kutzatzen den bezela yende artean. Ezdakit zergaitik baña euskera ikastea gure denborak arte, txikiezkerotikan ez yakinta, beste munduko gauza iduritzen zezion yendeari. Egia da gure izkera zalla dela agitz. Izkera zar bat ezin izan erraxa eta gero ere probintzi arteko difentziak zalztasun besterikan ezdio ematen euskerari. Difentziak gaiendu dire urtetik urtera zergaitik probintziak baztertuak egondu dira, orain berriz rebistak, ikastolak eta yendearen mugitasuna gero ta batasun errax ta garbi batera eramaten al digute.

Lankizun zall, baña aundia, onetan guk siñestuko genduke biñon yende geiago bere biotzak paratzen dituzte alde guztietan gure euskera gaitikan.

Guk, gaurko gaztedi berria, bearrezkoak gera gure izkera salbatzeko. Euskeraz mintzatu bear dugu, au ere zalla ikusten degu, auzintan lotsatzen bai gera yende artean. Yendeari bere kulpia ezin ukatu, erran nai dut mutil batzuek euskeraz ari direla ta begia botatzen diote; ba, ori goiko erri txar batekoa edo urrutiko baserrikoa, yende fiñ erri artekoa ezin izan. Olako itzak zoriontxarrez erritar aunitzeri entzuten diogu.

Ikusten dugu, ez traba anitz euskera barrenean, yendean... biñon Jaungoikori esker badire makiña bat bere burua asmo batetik ematen dutenak.

Okin guk ere erran dezagun biotz biotzetik itzok

Euskaldun yayo nintzan euskaldun azi:  
Euskera utsik amak zidan erakutsi.  
Euskera maite-maite, zabiltz nerekin beti;  
Euskera ill ezkeru ez det nai nik bizi.

GAZTE BATEK



**DONZTEBE**

## BAZTAN TA MALDA-ERREKA'KO ERRIKO JAIK

Gure lurralde maite auetako erriko jaiak, bestak, Irurita'n ta Urdezubi'n (Urdax'en) Igokunde edo Salbatore egunez asiera eman ta Gartzain'en, Berroeta'n ta Ituren'en Sanmartin egunez bukaera ematen zaie.

Esan bezela, Irurita'k ta Urdezubi'k, Salbatore egunez ospatzen, zelebratzen dituzte; Arizkun, Oieregi ta Saldis'ek, Sanjuanak; Erratzu, Almandotz, Donzetebe ta Beintza-Labaien'ek Sanpedrotan Azpilkueta ta Lesaka'k, Sanfermiñak; Elizondo ta Elgorriaga'k, Santio egunez; Bidaso'ko Bera'k, Sanestebanetan (abuztuaren irugarrenean); Gaztelu'k, Santodomingotan (abuztuaren laugarrenean); Ziga'n, Sanlorentzotan (abuztuaren amargarrenean); Sunbilla'k, Sandiburtiotan (abuztuaren amaigarrenean); Zugarramurdi, Amaiur (bi erri auek ez dira Baztangoak), Arraiotz, Aniz, Oronotz, Donamari, Ezkurra, Zubieta, Aranatz ta Etxalar'en, abuztuko Amabirjin eguna; NARBARTe'k, Sanfelipe Neri (abuztuaren ogei ta irugarrenean); Lekarotz'ek, Sanbartolometan (abuztuaren ogeita laugarrenean); Legasa'k, Sanagustiñetan (abuztuaren ogei ta zortzigarrenean); Oitz ta Eratsun'ek, Solbeziotan (buruillaren edo agorraren zortzigarrenean, Amabirjinaren jaiotza egunean); Eluete'k (Elbete), Santakurtz (buruillaren amalagarrenekoa); Urrotz ta Igantzi'k, Sanmigelak; eta, Gartzain, Berroeta ta Ituren'ek, Sanmartiñak.

Zaindaririk ez duen erririk ez da. Birtarteko bezela, Zeruetan dago Zaindari ori. Erriak maite dio ta erregutzen biotzez. Jai oiek zelebratzeko, ba-dauzka erri bakoitzak bere usa-legeak, oiturak; al duenak al duen eran, zelebratzen ditu. Ba-

# Malda - Erreka'ko Lau - Errieta'tik

Uztailla-Agorrilla'ko "Principe de Viana" illerokoan, 29-30'garren zenbakian, denok dakizuten bezela, argitaratu zen "karta-protesta" bat, nik, illeroko maitagarri onen 27-garren zenbakian, lumeroan, euskerari buruz idatzitakoari egiten zitzaion erantzun mingotza. Erantzuten zidan idazlea ta izenpetzen zana, Francisco Eraso Alduncin jauna da.

Iskanbilla ikaragarriko idaz-lana izan bear zuen nunbait nereak, Eraso jaunak, "berentzat" arturik gauzak, aldezen ta defenditzen delakotz. Karta orren aurrean "ixillean" gelditzea, etzait batere egoki. Erantzun nai diot gauzak beren tokietan ongi uziteko asmo onarekin. Gizon ta euskaldun bezela. Bera-gana gorroto txikienik azaldu gabe.

Gañera, nik euskera utsean erantzungo diot, zergaitik, Principe de Viana irakurtzen duten guztiak —zazpi edo zortzi millak— euskaldunak dira. Erdera erabiltzen det bear danerako. Euskalduneri, euskeraz diet beti.

Eraso jauna: Dijoatzela aurretik zorionak orrenbesteko euskalzaletasunaren aitole azaltzen zeralako.

Urte batzuek badira nere are-pikorra jartzen dedala gure errien alde. Gure lurraldeen gora-berak poliki xamar ausnartuak ditut. Adixkideak-ere badituz batzarretan —kontrarioak ere izango dira— bañan, oraindik ez dit inñortok esan edo urpegira bota gezurtia naizenik, zuk baizik. Eraso jauna.

Barkatu, bañan, ez uste izan inñola ere, zuk bakarrik daukazunik arrazoa. Zu, zure iruogei urtekin, ni berrogeiekin bezein oker ta ez-jakin egotea gauz askori buruz, baliteke oso errez. Barkatzen dizkituzt irain guztiak, bañan kontuan lasai eukitzen al dezu, zure ta nere aldamenekoak izango dirala zu eta ni juzgatuko gaituztenak. Auek emango digute bakoitzari gerena...

Mesedez, gauzak ez okerrean artu. Nik ez nuen ezertarako ere aipatzen Donzetebe. Malda-Erreka aipatzen danean, lurralde aundiak entenditzen dira. Guk beñepein. Ez da Donzetebe'kin bukatzen. Gaizki ta okerrean zuentzat artu dezutenean nere idazitxoarena, pekatuen batek jo-ta arkitzen zeratela badu-iduri. Ba, orrelakorik baldin balitzake zuen tartean, zuzendu ta korrejiu al bezein ondo ta azkar.

Zuk ikutzen (ukitzen) dituzun puntu zenbait, ikuttuko ditut nik ere.

Goazen euskeraren gana: Ba-ote dago euskerarentzat gorroto aundiagorik ez erakustea baño? Edo-ta "zertarako euskera" baño? Eta, ezer ez, galerazterik ez badago.

Aita bat euskalzale aitorzen danean, aita orren euskalzaletasunik aundiena ta benetakoena, seme-alaberi bere izkuntza, euskera erakustea da. Aita ori gezurti bat izango da euskalzalea dela esatea esandako bide ori jarraitzen ez badu. Obligazio ori betetzen ez badu. Orra or euskera gorrotatzea; bera-gatik ezer ez egitea; dana utsean gelditzea. Au esatea, gezurtia izatea al da?

Benetako naparra zerala-ere esaten didazu. Ba, ni ere bai. Gai ontaz aurreko alde ez didazu kenduko, erroz-erro naparra nauzu ta azkeneko odol-ttantorano euskalduna. Bañan, badira zoritxarrez gure aldamenean "azpi-jale" asko. Gauz bat azaldu nai izan ta beste aldera jokatzin diranak. Kontuz oiek.

Eraso jauna, beste xeetasun asko alde batera uzten ditut emen aipatu gabe. Eta zure ta nere arteko "xalaparta" txiki au izan dedilla euskeraren onerako ta elkarren lasaipiderako.

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

## IGANTZI (Yantzi)



## URREZKO EZTALIAK

Zorionaz aurtengo ilbeltzaren 14'an Urrezko Eztaya'ren señailea edo oroitzapena egin zuten Tellechea ta Gastearena'tar Manuel eta Arozena ta Iribarren'tar Juana'k. Bere ume guztiekin bildu ziran Igantziko (Yanci'ko) Eliz Nagusia; goizeko 11'tan zuten Meza Nagusia.

Zugarramurdi ta Agesta'tar José Luis, erriko Erretore Jaunak, kantatu zuan Meza Nagusi ori euskeraz. Mez-erdian bere itzalditxoa ere egin zuan, eta gure Jesus Kana-Galileako eztaietan arkitu zanean egin zuan milagroaren itzak gogoratu zizkigun. Bi gazte ezkontzera dijoatzenean egiten duten sermoi ber-bera egin zuan. Eztai askotan arkitzen naiz, eta denetan berdintsu egiten dute itzaldia; danetan esaten dute ez dala aski ezkontzea; Ezkontzako sakramentua gordetzeko oso zalla dala.

Atera nintzan txoratu-ta apez Jaun orrek egin zuen sermoiaz, eta mezetako garaian kantatu zituzten kantu ederretaz; biotz barreneano sartu zitzaizkidan.

Tellechea ta Gastiarena'tar Manuel ta Arozena ta Iribarren'tar Juana'k 1918'ko ilbeltzaren 8'an artu zuten Ezkontzako Sakramentua Urroz'ko Eliz Nagusian. Esango nuke, inñork bete badu Ezkontzako señaile ori, Manuel ta Juana'k bete dutela; ez det ikusi senar-emazterik orreiñ ongi eramaten dutenik. Maitasuna beroa izan bear du beren biotzetan, baita errespeto aundia ume-sallari.

Sall ori zenbat ote da bada? Lau edo bost gaurko egunean «Famili numerosa» deitzen zayona? Ez; azkarkiz geyago. Famili ontan zazpi seme, ta zazpi alaba bizi dire. Amabostgarrena, José Mari (gazteena zena), gaztaña gañetik erori-ta il zan amalau urteetan. Jainkoak emana, Jainkoak eraman. Amalautik, bederatzik ezkondu-ta daude; eta alaba bat, Sor María, Donostia'ko Residencia'n egoten da eriak kuidatzen. Bertze lau berriz, oraindik ezkon-gai dira.

Olako ume-salla zutela-ta 1958'ko urtean Iruñeko Gobernadoreak, Estadun izenean, amalau milla pezeta eman omen zizkion lenbizi, ta gero Igantziko Laraitz deitzen zayon baserria. Baserri ontara 1959'ko urtean bizitzera yoañ ziran Manuel ta Juana bere seme zarrena Jose'rekin.

Ilbeltza'ko 14'an Mezako garayan bildu ziran Manuel ta Juana, 14 seme-alaba, 7 sui-erreiñ, 30 illoba, Sor María'ren bizpauru lagun, eta erriko yende asko. Franzisko Sorozábal bere emaztearekin ere an zagon. Egun artan Manuel'ek esan zidan Pako Sorozábal'i esker, artu zituztela amalau milla pezeta eta Igantziko baserria.

Meza ondoan erriko ostatuan bazkari ederra egin gendun.

Orain berriz zori-txarrean arkitzen da famili ori. Orain dela denbora puska bat, Joxe bere emazte ta bi umeekin Igantziko errira zijoala, ala biar-ta dudikan gabe, coche bat sartu omen zitzaion gañera; eta bi urte t'erdiko alaba il zan, Joxe anka bat autsi-ta ta gañerakuak gañera.

Joxe ta bere emaztearentzat naigabe aundia, bañan baita ere Manuel ta Juana'rentzat.

FIDEL AGESTA

# BEOTIBAR'KO GUDAKETARI BURUZ

Idazburu onetaz Carlos Claveria'k Garagarrillaren 2'gn. Iruña'ko «El Pensamiento Navarro»-n idatzirik idazkia atsegin osoz irakurri dugu.

Beotibar'ko gudaketak ots bereziak ditu tolosarrentzat. Eta ots berezi auei jaramon egini, urtero-urtero San Juan egunez aurreku baten bitartez ospatzen dugu. Tolosa'k eta tolosar ixtoriak baditu oiñarri bereziak gudaketa ontan eta bere ondorenez ospatzen diran jaietan.

Claveria jaunak bezela, ez dugu ixtori muñean sartu nai. Ezdugu denborarik galdu nai nork arrazoi duan jakiteko azterketan. Ezdugu bururik nekatu nai ere alde batetik eta bestetik zenbat gudari ziran eta nortzuk azaldu ziran trebeago jakiteko azterketan.

Gauz bat dago garbi guretzat. Eta batera gatzotz ontan Claveria'rekin: Gudaketa ori anai arteko, senideen arteko burruka tamalgarrri bai izan zela, eta onexegatik lotsakizunez betetzen gaitula gipuzkoarrei bezela naparrei ere.

Aurten, Tolosa'ko Ayuntamenduak, garai artako guda-jantzi bereziak jantzi ditu dantzariak jai ori ospatzeko. Onetaz, Claveria jaunak onelaxe dio: «Tolosa'ko Udaletxeak onetaz artutako erabakia asmakizun zoritzarretakoa deritzagu. Zentzu geiagokoa ez ote litzake, Irun'go San Marzial jaiak imitatzen aritu bearrian-onek bestelako oiñarriak ditualako ixtorianez-askoz obeago beste giro bat ematea tolosar jai oni?».

Eta jarraitzen du. «Gure iritzia beste giro ederrago bat eman genezaio jai oni, gipuzkoar eta naparren arteko adiskidetasuna eta senidetasuna goraltzeko erabiliaz, ezaigerra alperrik, aiek eta guk, Euskalerrria deritzagun enbor baten adar anaiak».

«Bai gogoangarria izango litzakela Naparroa'ko Aldundiari «San Juan» etara etorri ditezten otsegitea, danok anaikor jai bat ospatzeko, alkartzan duen jai batean biltzeko, goraltzeko eta aietzeko, onela. Alkartzan dituzten jaiak eta baztertzeko banatzen gaituzten jaiak, ia aaztuzten ditugun bein betikoz antziñeko gorrotoak berritzen dizkiguten jaiok: aaztuzteko obeak baidira».

Bai, Tolosa'ko erriak jantzi berriz jantzi ditu bordondantzariak, aureskulariak. Jantziari buruz ez nijoa ezer esatera, ez alde ez kontra.

Baiñan jantzi berri auek erabiliaz, edo lenagoko zaarrak erabiliaz, berdin zaigu, jai anaikor bat egin leizke ondorengo gure San Juan jaietan.

Ni eznaiz nor gauz eta izkanbill auetan sartzeko. Baiñan tolosar bezela nere iritzia emateko eskubidea badet. Eta jantzi batzuekin edo besteekin jaiari bide berri bat eman genezaio. Ara nere iritzia.

Aureskua eta desafioa, gipuzkoar eta naparrak, erdizka bearko lukete. Auresku gipuzkoarra balitza, atzesku naparra. Bakoitza bere mutillakin, egizko napar mutillak eta egizko gipuzkoar mutillak.

Desafioaren ondoren, guda eta gorroto ezpatak lur azpian edo kutxa batean gordeko lirake sinbolismo aundienaz, pakenaia, gorroto eza, eta anaitasun sendo eta egizkoaren adierazgarri bezela.

Eta ondoren, bere jantzi ta guzi, dantzariak anai poza azalduko lukete San Juan zortzikoa dantzaturik eta ondorengo fandango, arin-arin eta gure dantzetan. Eta azkenik, erriak artuko luke parte jai alai ontan.

Ezgeralako iñoiz aspertuko euskaldunen artean anaitasuna zabaltzen, Claveria'ren asmo zuzen eta onuragarria ontzat artzen dugu eta tolosar arrokeria alde batera utziaz, gure aletxo eskeintzen dugu, ia bein, Euskalerrrietako semeak odolez anai geran bezela, anaitasun asmoetan bat izaten geran.

Besterik ezdizut opa, ene Euskalerrri zaar-zaarra!

(«Zeruko Argi» astekaritik artua).

# NAPARRO'KO ARTZAI - TXAKURREN LENENGO TXAPELKETA



Yoan den Duruillaren lenengo egunean Uarte-Arakilgo erriko «Geimbera» deitzen den zelai ederrean, **Naparro'ko Artzai-Txakurren Lenbiziko Norgaiagoketa** ospatu zen.

Eguraldi ona egin zuen, eta yende izugarri bildu zan.

Bederatzi artzai bere txakurrekin agertu ziren Txapelketan parte artzeko. Probak, ariketak denak ondo bete zituzten eta azkenean ordena ontan gertatu ziren:

1'go.: Ricardo Goikoetxea. Txakurra: «Txiki».

2'gn.: Cirilo Azkargorta. Txakurra: «Txiki».

3'gn.: Mikel Artola. Txakurra: «Chato».

4'gn.: Emilio Royo. Txakurra: «Can».

5'gn.: Isaac Ezkurdia. Txakurra: «Fina».

6'gn.: Manuel Fernandez. Txakurra: «Reberte».

7'gn.: Pedro Zabaleta. Txakurra: «Perla».

8'gn.: Antonio Mitxiltorena. Txakurra: «Toni».

9'gn.: Jose Mari Marture. Txakurra: «Chabal».

Txapelkun gertatu zen «Txiki» txakurra Euskalerrriko Artzai-txakurren Txapelketa nagusira joan bearko du Naparraren partez, Txapelketa nagusi au Oñatiko errian ospatuko da.

Egun bereko goizean Bizkaiko Txapelketa ospatu zen Durango merindadearen Yurretako errian; zortzi txakur aurkestu ziren eta Mañari'ko «Riki» izenezko txakurra txapelkun gelditu zen. Ill onen bigarren igandean Alaba'ko Txapelketa ospatzekotan zegoen.

# BOXEO

Bear bada zenbaitzuek «Boxeo» delako kirola edo deporte astokeri bat da eta bertze zenbaitzuek berriz ez. Beti ere yosteta orrek munduan barna erreliste aundia du badira bai yarraikiitzaiek, eta nork erran bear du gizon bat mutur-yoka aberasten al dela? bai eta egia.

Euskalerrri beti izan ditugu gizon bizkorak eta indartsuak, arriazaleak, pilotariak, aizkolariak, denak mundu guzian famatuak. Bozeolarietan ere euskadunak ez dira ga-beak izan eta lenagoko denboretan aski onak izan ditugu. Denen gañetik aipatu dezagun Paulino Uzkudun orai dela berrogei urte munduko oboerenetako izana, gero eta denbora aietakoak ere or datoz, Isidoro Gaztañaga, Mateo Osa, Juanito Olagibel, gero ditugu Arziniega, Pako Bueno, eta gaurko egunean gauz aunitzik ez. Baiñan ara orain iñork uste etzuenean izen aundiko arriazotzale bat bozeolari biurtu zaigu. Jose Manuel Ibar «Urtain» Arronako semea dugu boxeoan asia, gizon bizkorra eta gaztea, 24 urtekoa eta 1,79 m. luze eta 90 kilo pisu, orren muturrekoa goxoa izanen da noski. Goan de Uztailaren 24'ean egin zuen lenda biziko borrokaldia Toni Rodri bilbotarra kontrarioa zuelarik. Rodri delako hori gauza utsa izan zen gure Urtain'entzat, onek lenda biziko muturrekoarekin aidian bota baizuen. Bigarren borrokaldia Donostian egin du eta oraingoan Miranda arjetinatarra bere kontrarioa, au gizon bizkorra 115 kilo pisu eta boxeoan ere ez nolanaikoa. Bainen gure bozeolari euskalduna dudik gabe bada zerbait eta oraingoan ere bere kontrarioa porrokatu du. Onek bertzeak baño pixka bat geiago irau dio, bainen bigarren «round» ean ezkerrekin sekuleko ukaldia emanta Miranda lurrera bota zuen legar zaku bat balitz bezala. Bigarren borrokaldi au Donosti'ko belodromoko plazan egin zuten eta mundu bat yende bildu zen. Eztakigu Urtain noraño iritxiko ote den bainen mutillak badu indarra eta zaulitasuna eta badugu uste urte baten buruko txapelkun bat izanen duela, Españi'koa beintzat laster ardie-tsiko al du. Eta orai zai egon gaitezen eta Urtain'en baitan uste osoa izan dezagun, ea ba bi edo iru urte baño len Europa'ko bozeolarien Txapela bereganatzen duen, hori nai genduke euskaldun kiroltzaleek eta bizkitartean igurikatu dezagun.

J. M. S.

ANZANARRI

# LAKUNTZEKO PERTZA

Zenbat lakuntzar ote zen errian buruillaren 18'an? Ez dakit norbaitek jakingo ote duen. Asmatzekotan, naiago nuke nik gelditu zirenen kontu eman, Aralar mendira joan zirena baño. Gazteak oiñez, mendia gora; eta ezin zutenak, jarrita. Bi autobus aundi, alde batetik; eta astoaren inguruan zirenak, bestetik. Eder da erri bat osoa elkartasun ortan bat eginik ikustea.

Bi gauza berri, aurtengo festan; biak jatorrak. Pertzaren malkor gaitetik botatzea eta eguerdiko ber-

tsolaria. Norbait konturatu zen gauzak beren gatza behar dutela, eta an sortu zen shalsha!

Bidean, pertzaren otsa. An izan balitz errotari gizajoa! Naiko lan eman zuen astoak. Aren anka me, zimelak, etzuten lurrera joan nahi. Ezin kendu behar bezela pertza. Bezperako Martinen zaldare irinak «konpueto» guziak baño indar geiago zuen nunbait. Astoa belauniko ikusi nai eta, berak ezetz; San Migelen erretratuko zuela...

Mi gaiztoak esaten dutenez nola

edo ala errenditu omen zuten asto txikia, eta an joan zen anka gora pertza.

Geiago da Oreja bertsolariaren bildurra! Zuria baño zuriago da Guarden etxeko iruzkiaren argia. Itsutzeko zuria. Eta Orejak ilun ikusten zuen Lakuntzeko Pertzaren kontua. Bere gazte donboran esan behar lakuntzar bati Pertzaren konturik! Bildur zen norbait mintzeko, eta apez alferrekin sartu zen leporaño. Asto beltzarenak an bota zituen gure bertsolariak, lan gutxi eta salda ona artzen duten eliz gizonendako. Denetik izango baita Jainkoaren baratzean. Ori bai; bertso legunekin gozatu zuen gero laño beltzen erauntsia. Berriz entzuteko gogotan utzi gintuen Orejak.

Goizeko aize otza bertsuak bezela, arinduz, epelduz joan zen eta bero zen eguerdi garaian. Itzal txiki bat zegoen askoren asmoan: meza. Euskaldun festa, oitura euskalduna, euskaldun jendeak eta Aralar mendiak lakuntzarrak erderaz meza. Portuges zapel aundi batzuk nituen ondoan eta aiengatik poztu nintzan. Elitzake gutxi denentzako zerbait izatea. Ez dago esku txarretan. Aurrrera!

Ori bai; tripota kia dariola eta mendiko gosea ongi uzartzen dira. Aren pareko ollaskorik!! Ardo gorriak gero azken itza esan ondoan, danok Guarden etxe aldera. Beste urte bat arte. Lakuntzarrak ez dute galdu beren gatza.



# GARZARONGO PILOTA-TXAPELKETA

1960'garrengo urtean bukatu zuten egitez Garzarongo pillota lekua. Urte berean «Pensamiento Navarra»-k antolatu zun pillota-txapelketa bat. Geroztik orain arte urtero egin dira txapelketak. Urte zallaka izandu dira, baño denetan asiera eman zitzaioten eta baita ere oso ederki bukatu.

Pillotari famatuak yokatu dute, Lajos, Martinez de Irujo, Ezkurra, Oreja II, Oreja III, Elizalde, Mugu-ruza, Okiñena... eta, eta. Nai ta naiez txapelketa ok pillotari onak ateratzen lagundu dituzte.

Garzarongo erri ontan ala nola urbilgotan oiek bezin onek sortuko dira, eta zergatik ez?, obeak ere bai, txapelketa ok jarraitzen badute.

Beste batzuk ain onak ezdira izango, baño denak pillotan yokatuko dute. Orrengatik txapelketa ok antolatzeko beti baimena ematen du Naparroko Pillotaren Federazioak.

Aurten yokatu bear dute oegi amar pareja (biko, edo bikote). Basaburuko erri eder ontara etortzen direnak, igande-atsaldea oso ongi igarotuko dute.

Bada gizon bat lan asko egin duena txapelketa oketan. Ori aingeru Aldatz da. Eta nik uste dut aurtengo txapelketan bukaerako gauz berezi bat prestatu bear giñukela eskerrak emateko.

Baño zer? Lenbiziko prestatu egin bear; Denborik ez baldin bada prestatzeko, beste egun bateko utzi bear. Prinzipalena egitea da.

JOSE LUIS LEGARRA

Oharra: Guk ere euskal orri oke-tatik Legarra jaunak eskatzen duen bezala Aingeru Aldatzi omenaldi bat egiteko eskatzen dugu. Basaburutar jator onek merezi duelakoz.

# BESTAK

Abuztuko ilabetea bestaz ongi ornitua dagola, bai alafede! Amabirjinetan Amayur, Oronoz eta Arrayoz'ko erriek beren bestak ospatu dituzte eta bai zugarramurdiarrek ere, erri huntan ere Amabirjinetan egin baitituzte. Aurten Arrayoz'ko bestak izan dute erreliste, bertze urtetan baño aisa yende geiago bildu baita, soñu ederra zuten eta bazen umorea. Azkenengo egunean igandearrekin bertsolariak ere izan dituzte, Lizaso eta Etxeberria gipuzkoar bertsolari gazteak aritu zirelarik. Goizean apezaren salan eta arratsaldean plazan bi gipuzkoarren kantaldia denen gogokoa izan da. Zugarramurdi'n urtero bezala sekuleko zikiro yatea egin dute eta besta ortara yende aunitz etorri omen zen. Lekauzarrek ere beren erriko bestak ospatu dituzte eta urtero bezala San Bartolometako besta oiek izan dute erreliste.

Goan den udaberrian asitako erreboteko txapelketak orai izan du bere bukaera. Xapelgo au Irurite'ko errian yokatua da eta or arri izanak dira, Billabonatarrek, Iruritarrek, Hendayatarrek, Hazparrendarrak, Ainhoatarrek. Goan den Abuztuaren 25'ean yokatu zuten Azken partida, hendayatarrek hazparrendarren kontra eta gudukaldi eder bat egin ondoren Hendaya'ko ekipak irabazi zuen Irurite'ko Txapelgoa bereganatuz 13-10. Hendayarrak txapelkun. Zorionak.

Partida au asi aintzin «Yoko-garbi» deitutako partida bat yokatu zuten, iru Iruritar Hendaya'ko bertze iruen kontra eta iruritarrek aisa irabazi. Zorionak iruritar pilotari gazteeri, eta gure goresmenik maitekorrenak Txapelketaren antolatzaleari.

M. I.